

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/6/1 | 365

- 🌀 Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala
- 🌀 Normalizazioa: UEMA eguna
- 🌀 Eskola txikiak 25 urtez bizirik
- 🌀 Irakurlearen begietatik
- 🌀 EMAROCK, iragana, oraina eta geroa

Sua,
Lapurdiko
inkisizioa pelikula
bihurtuta

🌀 Egoitz Iñurritarekin solasean

SUPER EKO
SUPERMERKATUA



Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa




Gora Anoetako jaiak!



Anoetako Udala



NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA



DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

AMAIA ETXETXIPIA
"Biologiaren" lizentziatua
"Giza Elikadura eta Dietetikan" Diplomatua

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA, TOLOSA, TEL. 679 934 888



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea, 7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel. 943 650 375
Faxa 943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com



konbinatu
graduatuak + eguzkitako graduatuak
97€

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbiztu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Aranzadi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



KUTXA GIZARTE EKINTZA

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.








Erreportaia:
Sua, Lapurdiko inkisizioa pelikula bihurtuta

Eneko Aritzaren Lagunak taldeak espero ez zuen erantzuna eskuratu zuen "Eneko Aritza (Orreagako Gudua)" metraje laburreko filmarekin. Esperientzia horretatik abiatuta, "Sua" filma errealtate bihurtzen joan da "herri mugimenduan oinarriturik".

8-11. orrialdeak

Anoeta eta Amezketza artean kokatzen du bere burua Egoitz Iñurrita Goñik (Anoeta, 1982). Ez du biderik samurrena aukeratu. Ezustean, buruan sortzen zaizkion ideiak bere eskuez gauzatzean gozatu egiten du eta sormenaren erronka ireki, koloretsu, aberasgarri eta nekezari eutsi dio.

Elkarrizketa: Egoitz Iñurrita
14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala	4-5
	Normalizazioa: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, UEMA eguna	6-7
	Eskola txikiak 25 urtez bizirik	12
	Irakurlearen begietatik: Utriusque Vasconiae, Iragana gero eta handiagoa da	17
	EMAROCK, iragana, oraina eta geroa	18-19

Erle txikiei etxea bilatuz



Begoña Aristi
EHNE

“Garai bateko baseritarrek erleak zeuden lekuak estimatzen zituzten, bazekitelako, fruitu eta arbola on asko egongo zirela bertan”, entzun nion eskarmentu handia duen erlezain bati.

Harritu egin ninduen erlauntzetako egituraren berri eman zigutenean. Erlauntzetan hiru erle mota egon ohi dira: langileak, erle mandoak eta erregina. Erreginek berezkoa duten eginbeharragatik ezagunenak dira. Handienak. Erleen biziraupenean katebegia dira, baina ez beraiek bakarrik. Izan ere, langileek erabakitzen baitute erregina berria noiz sortu, eta zaharriaren erretiroa noiz eman. Erregina berriak, gainera, bizkartzainak ditu eta zaharriaren jeloskorkeriari aurre egiten diote. Bien arteko borroka handi baten ondoren, zaharrak galdu eta alde egin behar izaten du.

Hala ere, erregina zaharra ez da nolanahi edonora joaten. Aurretik, bakero eta indioen filmetan agertzen den bezala, terrenoa aztertzerako joateko erle batzuk bidaltzen ditu. Haiek etxe berria aukeratu eta hantxe hasten dute egoitza. Bi erlezainek erleen izaera bere eginez, terrenoa aztertu eta erle txikiarentzako etxe berria aukeratu dute eta hantxe hasi dute egoitza berria.

Urtetan intsektu bitxi horiei begira aritutako bi erlezainek erakutsi ziguten erlategia. Bi gidariek, erleek egin ohi duten bezala, terreno berria aztertu dute azken lau urtetan. “Orain 150 urte batek asmatu zuen argizarizko lamina erleei lana errazten ziena. Belgikar bati, ordea, lamina horietako gelatxoak handixeago egin eta erle handiagoak sortzeko grina sortu zitzaion”, azaldu zuten erlezainek. Ondorioz, erle txikia desagertzeko zorian gelditu zen. Orain, ordea, bi erlezainek erle txikia berreskuratzeari ekin diote: “erle handiek estres handiagoa jasaten dute eta gaitz gehiago dituzte. Horregatik, Arizonan erlezain batek egindako ikerketari jarraituz, hemen ere erle txikia berreskuratzeko ahaleginean ari gara”.

Erle handia egiteko grinak, Asiako liztorrak, botiken aurrepresek... inork ez du lortu betiko bi erlezain esploratzaileei erle txikia berreskuratzeko gogo bizia deuseztatzerik. ☺

Galtzak bete zabor

Batuetan biziagoak izaten ziren, besteetan bareagoak, agian ados izaten ginelako, baina beti aberasgarriak. Bizitzan egokitzeko zaizkigun zenbait egoeren aurrean irizpide jakin bat edukitzeko hausnarketa eta elkarrizketa funtsezkoa dela pentsatu izan dut beti.

Hori dela eta harritura naua zaborren kontu honek. Bankuen iruzur masiboa, osasun publikoaren kontrako neurriak, edota langabeziaren gorakadak lortu ez duena sortarazi du herri mailan. Ezinezkoa, kritikak, beldurrak..., baina gaiaren mamira sartu gabe.

Hondakinen kudeaketa hainbat esparrutan adarkatzen da. Orokorrean, interes ekonomiko ugari sortzen dituen enpresa alorrak, biztanlegoak hondakinak jaso eta bereizteko duen ardurak eta Administrazioek osatu beharreko plangintza eta arautegiak osatzen dute.

Aipatu lehen esparruaren inguruan duela urte gutxi Napoleosen gertatutakoa datorkit gogora. Mafiak hondakinen kudeaketa kontrolpean izanik, gobernu italiarrak ejerzitoa bidali behar izan zuen hango zabortegiak berreskuratzeko. Albiste horrek harridura sortu zidan ordurarte ez bainekien hondakinen kudeaketak suposatzen zuten diru mugimendua.

Plangintza eta arautegiei dagokionez, Europar Batasunak jarri berri dituen zabor kudeaketarako etorkizunerako irizpideak aipatu nahi ditut. Lehen neurria hondakinak murriztea da, hau da, ahalik eta hondakin gutxien



Zigor Agirrezabala
Diseinatzaile grafikoa

Beti harritu izan nau zenbait etxetan politikaz ez hitz egiteko hartutako jarrera hori. Zorionez, nerabegarotik aurrera sekulako eztabaida politikoak bizi izan ditut beti nere gurasoenean.

sortzea. Ondoren, sortutako hondakinak berrerabiltzea bultzatuko da eta azkenik berrerabili ezin daitekeena sailkatu eta berziklatu. Hauek guztiak jakinda, berziklatzeko erabiliko den sailkatze eredu gaitzaren osatzea da. Egunerokotasuneko erosotasuna ahaztu gabe, garrantzitsua izan beharko luke. Nork esango lioke ezetz %80-ko emaitzari? Emaitza horrek azaleko gatazka politikoa gainditzeko duela iruditzen zait.

Hala ere, hemen esandako guztiak haizeak eramaten ditu jendarteak honen inguruan kontzientziazten ez den bitartean. Horretarako hezkuntza nahitaezkoa da, hezkuntza alor guztietan, eskolan, lanean, etxean, kalean...

Aurreko larunbatean, “Nafar estatua gogoan” izenburupean ospatu genuen jaiean (nere zo-

rionik beroena antolatzaile eta laguntzaile guztiei, oso egun atsegina pasa baigenuen) lagun batek esan zidan bezala, gai honen sekulako gatazka sortu badu ere, hango plastikozko plateren erabilpenak zer pentsatu eman beharko ligukela, zaborra ez sortzearen aurka doalako. Udalak, horrelako ekitaldietan antolatzen direnerako platerak eta kubiertoak biltegi batean eduki beharko lituzke. Ez da batere logikoa zaborra ez sortzearen filosofia bultzatzea gero praktikan jartzen ez badugu. Baina hori ez da borondate onarekin lortzen bakarrik, administrazioan barneratu beharko litzateke eguneroko lan ildo bezala.

Denborak zauri guztiak sendatzen omen ditu. Hondakinen gaiarekin ere, denborak erakutsiko digu ahalik eta jarrera arduratsuenak jendarte eta pertsona bezala garatzea ekarriko gaituela. ☺

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

UEMA eguna

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea da UEMA. Tolosaldeko Aduna, Alegia, Altzo, Amezketak, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain eta Orexa udalerriak mankomunitatearen parte dira. Urtero udalerri euskaldunen UEMA eguna ospakizun bihurtzen da eta aurtengoan Goizuetari egokitu zaio festaren kokaleku izatea. Aitzaki hau hartuta UEMAREN inguruko jakingarri batzuk gogoratzeko eta Tolosaldeko herritarrek Goizuetara gonbidatzeko bidea dira ondorengo lerroak.



izan dezaten. Hori da, bi hitzetan, UEMAREN funtsa.

Mankomunitateak badu dagoeneko 20 urtetik gorako ibilbidea. 1998.ean Euskal Herrian Euskarazek aurkeztutako mozio baten inguruan hasi zen mugimendua, eta Mankomunitatea bera 1991. urtean eratu zen. Ibilbide luzea egin du orduz geroztik, euskalgintzarekin lanikidetzan aritu da horretarako, eta hasieran udal gutxi batzuk osatzen zuten erakunde hura, 60 udaletik gora eta 200.000 biztanle biltzen dituen Mankomunitatea bihurtu da. Herri horiek guztiak, nolabait esateko, euskararen arnaguneak dira. Euskarak arnasa ematen diote herri horiek. Eta Goizueta eta Tolosaldeko aipatu herriak ere mugimendu horren parte dira.

Mankomunitate honek hasiera hasieratik bere buruari jarritako helburuak hiru dira.

Honaxekoak:

- Udalerri euskaldunetan herri-tarrek egiten duten bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan dadin bideak urratzea.
- Udalerri euskaldun guztiak bat eginik, euskara nagusi izango den lurgunea osatzea.
- Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta soziokulturala bultzatzea.

UEMAko kide izateko herri euskalduna izan behar da. Alegia, gutxienez herritarren %70ak euskalduna izan behar du. Hori ezinbesteko baldintza da. Horretaz gain, jakina, oso garrantzitsua da udalak UEMAREN helburuekin bat egitea, euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko ahalegina egiteko konpromisoa argia izatea, eta Mankomunitatean sartzeko erabakia hartzea.

Hauek dira gaur egun UEMAN sartuta dauden herriak:

Arabak: Aramaio

Bizkaian: Bermeo, Busturia, Ajangiz, Muxika, Gatika, Aulesti, Amoroto, Gizaburuaga, Berriatua, Mallabia, Atxondo, Izurtza, Otxandio eta Artea.

Gipuzkoan: Aduna, Aizarnazabal, Alegia, Altzaga, Altzo, Amezketak, Anoeta, Antzuola, Arama, Azpeitia, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Bergara, Deba, Elduain, Elgeta, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Leaburu, Lizartza, Mutriku, Oiartzun, Orendain, Orexa, Orrio, Usurbil, Zaldibia, Zestoa eta Zumaia.

Nafarroan: Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Basaburuak, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizuetak, Larraun, Leitza eta Urdain.

Guztira 61 udalerri dira. 2012ko ekainean, nolabait ere, beste bost herri sartuko dira Mankomunitatean, eta 66 udalerri izango dira orduetik aurrera. Hauek dira laster UEMAN izango direnak: Ondarroa eta Mañaria (Bizkaia), Getaria eta

Oñati (Gipuzkoa) eta Igantzi (Nafarroa).

Herri asko, ikusten denez, nahiz eta kopuru hori oraindik ere handiago izan daitekeen. Guztiak ongi joanez gero, Mankomunitateak hazten jarraituko du, eta euskararen lurraldea osatuz eta sendotuz joango da. Euskararen etorkizuna ziurtatuko bada, ezinbestekoa da herri euskaldun horiek guztiak elkartzea, bizirik mantentzea, eta euskararen arnagune sendo bihurtzea. Ahalegin horretan

ari da UEMA, hain zuzen ere, baita Goizuetako herria ere, UEMA Egunaren kokalekua, eta apustu horretan bat egingo dute herriko eragile eta herritar guztiak.

Eta hori guztia ezagutzera emateko eta indartzeko, hain zuzen ere, ospatzen da urtero UEMA eguna. Aurten, esan bezala, Goizuetan egingo da, ekainaren 9an, eta hau da egun horretarako Goizuetan sortu den lantaldeak prestatu duen egitaraua:

UEMA Eguna

Ekainak 9

- 10.00 UEMAko udaletako ordezkarien batzarra udaletxean
- 11.00-14.00 Haurrentzako puzgarriak, jokoak eta tailerrak
- 11.30 Herriko etxeak ezagutzeko bisita gidatua
- 13.30 UEMA eguneko ekitaldi nagusia
- Goizean zehar** Artisauak, dantzariak eta musikariak herrian zehar
- 14.30 Herri bazkaria
- 16.00-18.00 Haurrentzako puzgarriak
- 19.00 Dantzaldia: Gabezin
- Gauean** Kontzertua Gaztetxean

Erredakzioa

Izenak berak nahiko garbi erakusten du izana, kasu honetan. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, alegia. Herri euskaldunak elkartzen dituen erakunde da, jakina, baina euskaldun izateaz gain, euskaraz bizitzeko asmo argia duten herriak biltzen dituela esan behar da. UEMAN sartzea erabaki duten udalek beren funtzionamendua euskalduntzeko konpromisoa hartu dute, eta baita herriko eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa ere, herritarrek euskaraz normaltasunez bizitzeko modua



enpresa katalogoak
aldizkariak
logotipoak
liburuak
publizitate komertziala
kartelak
egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

GUDARI KALEA 15-BHEHA TEL: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

Sua, Lapurdikoko inkisizioa pelikula bihurtuta



Eneko Aritzaren Lagunak taldeak espero ez zuen erantzuna eskuratu zuen "Eneko Aritza (Orreagako Gudua)" metraje laburreko filmarekin. Esperientzia horretatik abiatuta, "Sua" filma errealitate bihurtzen joan da "herri mugimenduan oinarriturik". 2002an kokatzen dira gaur amaituta dagoen pelikularen aurrekariak, zortzi urteko prozesuaren buruan Tolosaldeko ikusleek Leidorren ikusteko aukera izango dute datorren ekainaren 29an, ostiralean. Galtzaundik Orkatz Goenaga, egileetako bat, elkarrizketatu du.

Naiara Roldán de Aranguiz

"Sua" filma kokatu ahal izateko ezinbestekoa da "Eneko Aritza (Orreagako Gudua)" kortoak ekarri zuena gogoratzea, Eneko Aritzaren Lagunak taldeak abian jarritakoa. Orkatz Goenagari une hura gogoratzeko eskatu dio Gal-

tzaundik: "Algortako gure lagunekin gertaera batzuk korto bihurtzea bururatu zitzaigun, egoera xelege horretatik hasi baina Eneko Aritzaren gudaren kortoa egiten amaitu genuen. Oso ondo ateratu zen, hilabetean filmatu eta hilabete gutxitan

muntatu zen. Arrakasta itzela izan zuen eta horrek eraman gintuen oraingo beste salto hori egitera".

Saltoak salto, beste metraje laburreko filma bihurtu behar zena metraje luzeak bilakatu zen: "gure asmoa, inongo momentutan, ez zen izan luzemetria egitea, baina gidoia prestatzen hasi eta istorioak gehiagorako ematen zuela ikusita, eztabaida bat baino gehiago izan genuen eta azkenean istorioak ematen zuela ikusita, guk ere eman behar genuela erabaki genuen", dio Orkatzek.

Metraje laburretik, metraje luzeak; etxeko kameretatik, betacam formatukoetara; epe motzeko proiektutik, epe luzeak proiektura... Bata zein bestearen artean, "Eneko Aritza (Orreagako Gudua)" eta "Sua"ren artean, ezberdintasunez gain antzekotasunak ere badaude. Gaiari dagokionez, oraingo honetan, Eneko Aritza-

ren Lagunak taldeak Lapurdin izan zeneko inkisizioaren gaia aztertu du. Proiektu bietan Euskal Herriko pasarte esanguratsuak aztertu nahi izan dituzte Tolosaldeko gazteek: "Orreagako Guda euskaldunentzat momentu historiko garrantzitsua izan da. Sorginkeriak eta inkisizioak gure historian garrantzia badute; Euskal Herrian sorginkeria prozesu oso latzak pasa ziren; Zugarramurdi 37 prozesatu egon ziren eta Lapurdin 400 erre zituzten baina, era batera edo bestera, 3.000 pertsona izan ziren epaituak eta torturatuak".

Gidoia prestatzeko garaian, Pierre de Lancre inkisidoreak berak idatzitakotik abiatu dira, Euskal Herrian Txalapartak erdaraz argitaratutako liburutik, hain zuzen ere. Prozesu horrek urte t'erdi-bi urteko lana eskatu die. Dokumentazio lan handia egin badute ere, argi utzi nahi dute euren proiektua



dokumentala ez dela: "XVII. mendeko euskaldunen bizitza, erritoak, janzkera kontutan hartu nahi izan dugu, baina ez da dokumentala, ez eta istorio erreala, fikzioa da, historia-aren pasarte batean oinarritutako fikzioa", zehazten du Orkatz Goenagak.

XVII. mende horretan pelikula giroa ahal izateko, landu beharreko elementu bat jantziena izan da. Horrela zehaz-

ten du Orkatzek: "Eneko Aritzaren kortoan erabilitakoak dira batzuk eta beste batzuk ordea, arropa zaharrak hartu, tindatu, zahartu, josi eta eskulanean birtartzet lortu ditugu".

Ehunka laguntzaile

Grabaketari dagokionez 2005eko maiatzean grabaketekin hasi eta hurrengo bost urteak lan horretan eman dituzte Eneko Aritzaren Lagunak tal-



10

deko kideak, jendearen ezinbesteko laguntzarekin. Izan ere, 700 eta 1.000 pertsona artean izan dira, modu batera edo bestera, "Sua" proiektuaren parte izandakoak.

Parte hartzaileak gainera, Euskal Herri osoko bizilagunak izan dira. Orkatzek kontatu bezala, obsesioa ere izan dute zazpi lurraldeetan lokalizazioak lotzeko, eta baita lortu ere: Iruñeko Labiano zalditegia, Legazpiko Mirandaola burdinola, Algorta, Sopela, Barrika, Azkorriko hondartza, Mauleko gaztelua, Lapurdiko Urtubi gaztelua, Zeraingo kartzela, Bermeoko Aita Guria baleuntzia, Baltzolako kobazuloak, Ozaetako Otaza auzoa, Ezkioko Igartubeiti baserria...

Honek guztiak pelikulan bere eragina ere izan du Orkatzek

azaldu bezala. Filma Lapurdin girotua badago ere, pelikulako parte hartzaileen jatorriari erreparatuta, gaur egunera arte iritsitako euskalki guztiak entzun daitezke "Sua"-n: "zineatografikoki akatsa izan daitekeena guretzat aberasgarria da. Ez genion pelikulari xehetasun horiek guztiak eman nahi, euskalki horiek guztiak entzutea, denak lapurteraz hitz egiten jartzea baino garrantzitsuagoa zela iruditu zitzaigun".

Grabaketa prozesuaz edota lokalizazioen batez gogortzeko garaian Orkatzi anekdotaren bat kontatzeko eskatzerakoan, kameraz eta bateriaz gogoratu da: "zailtasunak milaka egon ziren; kamera eta kameraren bateriaz pelikula guztiko anekdota bihurtu ziren. Momentu klabeetan, tomarik

onena lortu zenean, bateriekin arazoak izaten ziren". Bestetik, anekdotak aipatzeko orduan, Maulen ospatutako akelarrea eta festa ekartzen du gogora, hala ere, bertan milaka istorio gertatu baziren ere, "batzuk kontatu daitezke eta beste batzuk ez", dio barreari eusteko zailtasunekin.

Grabaketa unetan, filmaketako taldekideek arazorik gehien eskaini zutela aitortzen du Orkatzek: "zailtasun handienak gure taldeko kideekin izan ditugu. Gutxiena landuta zeramkienak gutarikoak ginen, izan ere, milaka gauzetan ibili behar ginen eta azken momentuan papera irakurritz ibili behar izaten genuen".

Grabaketa prozesuaren ondoren, lan isilenari berea egitea tokatu zaio: muntaketa prozesua, alegia. Muntaketa, prozesurik zailena izan dela aitortzen du Orkatzek: "taldekide baten ofizioa da eta berak bere denbora librean muntatu du. Ordu pila grabatuta zeudenez, horrenbeste luzatu da. Profesionalak ez garenez, grabaketako arazo tekniko ugari konpondu behar izan dira". Sortutako lehenengo muntaiak 3 ordu t'erdiko iraupena izan zuen, laburtu beharrezko premiaz jabeturik, ordu t'erdia mugatu zuten.

Horrek eztabaida bat baino gehiago ekarri zuen: "dilema bat genuen, mozketak horretan pelikulan parte hartu zuen jende asko pelikulatik at geratuko zen", dio Orkatzek.

Aurre-estrenaldia

Behin materiala landuta eta prest izanda, parte hartzaileei zein publiko zabalari eskaintzea baino ez da gelditzen. Datorren ekainaren 2an, larunbatean, arratsaldeko 16.00etatik aurrera, Arabako Ozaeta herriko Otaza auzoan aurre-estrenaldi festa-akelarrea antolatu dute Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kideek. Taldeak gonbitea parte hartu nahi duen edonori luzatu dio. Egunean zehar hainbat sorpresa izango dira, gauean afariarekin batera filmaren estrenaldia eta jai-akelarrea animatzeko kontzertua eta DJ Bull izango dira.

Ozaetako zita, Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kide askorentzat ere, filma erabat muntatuta eta soinu, soinu efektu eta Algortako Gibelurdin taldearen musikarekin ikusteko lehen aukera izango da: "Ozaetan denok batera ikusiko dugu, muntaketan dabilenak ez digu ikusten utzi, polita izango da, denon artean, beste giro batean ikusi ahal izatea", aurre-

kusten du Orkatzek.

Tolosaren txanda ordea, ekainaren 29a, ostirala, izango da. "Eneko Aritza (Orreagako Gudua)" *kortoarekin* gertatu bezala, Leidorren proiektatuko da, arratsaldeko 20.00etan. Estrenaldirako sarrerak salgai jarriko dira datorren ekainaren 5etik aurrera, Raku, Denak, Subegi, Atari eta Zubiaurren eta baita egunean bertan, Leidorreko leihatilan ere.

Argazki-erakusketa

Pelikulak emandako irudiek argazki-erakusketa ibiltaria antolatu du Eneko Aritzaren Lagunak taldeko kideek. Taldeak gonbitea parte hartu nahi duen edonori luzatu dio. Egunean zehar hainbat sorpresa izango dira, gauean afariarekin batera filmaren estrenaldia eta jai-akelarrea animatzeko kontzertua eta DJ Bull izango dira.

Bidea egitea, hori da orain "Sua" filmari dagokiona. Tolosaldeko gazteen proiektua Euskal Herriaren barrera herriz herri, kultur etxekultur etxe, aretoz areto, zinemaz zinema... ikusia izango da eta.

Aurrera begira

"Sua" filmaren proiektuak

orotara zortzi urte iraun duela kontutan harturik, Orkatzek *nekatuta* daudela aitortzen du baina aurrera begira plan berriekin ere jarraituko dutela argitzen du: "bere garaian 3-4 proiektu bagenituen, baina zortzi urte igaro dira eta gauzak berriz planteatu behar dira, kide askorentzat bizitza asko aldatu da, lehenengo atsedena hartuko dugu eta ondoren zer egin ikusiko dugu. Zerbait egingo dugu, ez gara geldi egongo".

Momentuz ordea, "Sua" pelikularen proiektio eta aurkezpenak iritsiko dira. Orkatzek ikuslegoari gomendio batzuk luzatzen dizkio: "ez da pelikula bat izango balitz bezala ikusi behar, ez da pelikula komertzial bat, ez ditu

pelikula komertzial baten kanonak betetzen. Herri mugimendu batek egindako pelikula da, sosik gabe, jakintzarik gabe... Helburua ez zen pelikula ona egitea, jendea mobilizatzea eta dinamizatzea baizik. Jendeari egiteko milaka gauza daudela erakutsi nahi genion, mila gauza egin daitezkeela. Azkenean helburua jartzea eta betetzea da. Guk hori azpimarratu nahi dugu; pelikula bat egitea bururatu zitzaigula eta egin genuela".

Aktibismo horretaz zipiritundurik, Leidorreko ekainaren 29ko estrenaldian, "Sua" filma disfrutatzea besterik ez du Tolosaldeko ikuslegoak, eskualdeko aurpegi ezagunak topatuz. ©

Datak eta informazioa

Ekainak 2, larunbata. Aurre-estrenaldi eta akelarre jaiak. Ozaetako (Araba) Otaza auzoa.

Ekainak 29, ostirala. 20.00. Tolosa, Leidor. "Sua" filmaren estrenaldia. Sarrerak salgai: Raku, Denak, Subegi, Atari eta Zubiarren.

Ekainak 11-29. Tolosa, Kultur Etxea. "Sua" filmaren grabaketa argazkien erakusketa.

Informazio gehiago:

www.sua-filma.com / Facebook / suaifilma@gmail.com



Garaian garaiko janariak eta arraikiatan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa



GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.

Baratzondo D 26. Ibarra

Tel.: 943 671 590.

Faxa: 943 673 916

11

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85



Eskola txikiak 25 urtez bizirik

Ekainaren 3an, igandean, Eskola Txikien Festa ospatuko da Larraulen. Aurtengoan ospakizunak garrantzi berezia eskuratuko du. Izan ere, zilarrezko urteurrena ere bada, Eskola Txikien Festaren 25. urteurrena ospatuko du Larrauleko Eskola Txikiak, Gipuzkoako gainerako 25 eskola txikiekin batera.

Bertsoa

Eskola Txikien Festak 25 urte betetzen ditu
Doinua: "Eguzkiak urtzen du goian"

Eguzkiak arnastu ahala egunsentiko aidea pauso txikitik egiten dugu eskolarako bidea. Herri bizitzak, plaza giroak, eskola du zutabea zein den luzea mende laurdena jolas soinuak gabea. Desberdinen artean eraikiz jakintza ta ondarea herriz herri eta auzoz auzo har dezagun adorea "bakoitzak berea urratuaz denon artean geurea" bizirauteko indarra dugu geroen baitan gordea.

Jexux Mari Irazu Muñoa

1988. urtean Bidegoianen egindako lehen festa hura oroimenean izanik eta iaz Abaltzisketari testigua harturik, urte osoa izan du Larraulek ekainaren 3ko zita prestatzeko.

Egun osoko egitaraua prest dago jada; goizeko hamarretan hasita, txupinazoarekin batera, festari hasiera emango zaio. Ondoren, eskulanak, Pirritx eta Porrotxen emanaldia, ekitaldi nagusia, Euskolabel bazkaria, Gorriti eta bere animaliak eta Kupela taldearen erromeria izango dira. Hala ere, egun osoan zehar, puzgarriak, idiak gurdiarekin, bolatokia, Larraulego eskola zaharrari buruzko erakusketa eta Eskola Txikien dokumentalaren proiektzioa ere eskainiko dira Larraulen.

Larrauleko Eskola Txikia

Badira 100 urte Larraulen lehenengoz eskola ezarri zenetik, zenbait urtetan bi eskola ere izan zituen herriak. Populazioak behera egitearekin batera, 1977. urtean itxi egin behar izan zen herriko eskola. Udala, egoerarekin kezkatutik, populazioa hazteko erabakiak hartu zituen: etxebizitza berrien eraikuntzak populazioan bere eragina izanik, 2008an berriro ere, eskola irekitzea ekarri zuen. Egun, 24 ikasleek osatzen dute Larraulego Eskola Txikia. Izaerari dagokionez, gela izaera

da Eusko Jaurlaritzak eskola honi egotzitakoa, 8 urteko haurrei eskola zerbitzua eskainiz. Aurrera begira ordea, 12 urte arte zabaltzea da Larraulego eskolaren nahia, gela izaeratik eskola izaerara pasaz.

Eskola Txikien dokumentala

Eskola txikien izaera berezia dela esan beharrik ez. Egunerokotasunean gurasoen, udalaren eta irakasleen inplikazioa ezinbestekoa dela zalantzarik ez. Honakoa abiapuntu hartuta, adin aniztasuna, publiko izaera, talde txikien garrantzia, naturarekin kontaktua eta herri proiektua bezalako kontzeptuak goraiatu dira 25. urteurrenaren harira egindako dokumentalean. Bertan, Gipuzkoako Eskola Txikien mugimenduarien testigantza jaso du Eskola Txiketako Gurasoen Koordinakundeak.

Dokumentalaren helburua ordea, "etorkizunera begirako gogoetak eragitea" da. Horretarako, hainbat elkarrizketa eta 8-11 urte bitarteko ikastalde baten hiru hilabeteko jarraipena jasotzen da. Ekainaren 1ean, ostiralean, Tolosako Leidor aretoan, arratsaldeko 19.00etan dokumentala ikusteko aukera egongo da. Baita Eskola Txikien festa egunean ere, Larrauleko eskolan, goizeko 11.00etan eta arratsaldeko 16.00etan.

Gizarte sareak eta nabigazio segurua

Egitasmoa Herritartasuneko ikasgaiaren eraman dugu aurrera, fase ezberdinak izan dituelarik. Lehenik, gaiari buruzko informazioa bildu dugu interneten, ondoren *Power Point* bat sortu dugu LHko ikasleei zein gurasoei eman beharreko formazio saioak prestatzeko. Segidan, gure *blog* propioa sortu dugu "Sarekoartzaik.blogspot.com" izenarekin, bertan sare sozialen arriskuen inguruko informazio ugari eta bideoak zintzilika-

Aurkezpen saioak goitik behera antolatu ditugu, beti ere irakasle baten gidaritzapean. Aurkezpen hauetan *Grooming*, *Ciberbullying* eta *Sexting* fenomenoak aztertu ditugu *Tuenti* gizarte sarearen azterketa sakon batekin batera.

Hitzaldiek harrera ona izan dute entzuleen artean, "atsegina", "praktikoa", "oso baliagarria"... moduko adjektiboak entzun ditugu gure lanaren inguruan eta horrek buruturiko



Sareko Artzainak Uzturpe Ikastola

Ibarrako Uzturpe Ikastolako DBH3ko ikasleok, proiektu solidario bat garatu dugu, hau da, ezagutza batzuk eskuratzeaz aparte gizarteari zerbitzu bat ematea helburu duen ikasketa proiektua jarri dugu martxan. Hautatutako gaia gizarte sareen arriskuei buruzkoa izan da. Hautu honen arrazoia gaztetxoaren artean gizarte sareen erabilerak bizi duen hazkundera izan da, hazkunde honek arazo ugari ekarri ditu berarekin eta hauek ekiditeko aholku sorta bat prestatu dugu proiektu honen baitan.



tu ditugu. *Blogaren* helburua interaktiboa izatea da, hots, edozein pertsonak bere iruzkinak egiteaz aparte guk iruzkin horiek erantzun nahi ditugu ezagutzak partekatzeko asmoarekin. Azkenik lan guzti hauek egin ondoren guraso zein ikasleei zuzendu beharreko aurkezpenak burutu ditugu.

esfortzuaren ordain ezin hobea ekarri digu. Gure ustez, gaur egungo gizarteari egokitzen zaion gaia da eta guk hitzaldien emandako aholkuak baliagarriak izan daitezke horrelako arazo bati aurre egiteko. Ea datorren urtean antzeko proiektu bat egiteko aukera dugun.

Egoitz Iñurrita eskulturnaren sormen bidetik

Anoeta eta Amezketan artean kokatzen du bere burua Egoitz Iñurrita Goñik (Anoeta, 1982). Ez du biderik samurrena aukeratu. Ezustean, buruan sortzen zaizkion ideiak bere eskuez gauzatzean gozatu egiten du eta sormenaren erronka ireki, koloretsu, aberasgarri eta nekezari eutsi dio.

Felix Aiestaran

Lehendik ere, musika alorrean aritua da, Anoetako lagunez osatutako *Izeba Pilarren Ilobak* talde gogoangarritik hasi eta, *The Solanos* eta *Rufus Rei* moduko taldeetatik paseaz.

Guillermo Olmoren eskutik aritu zen Amezketako San Martineko egur baso koloretsua osatzen. Ordudanik, eskulturgintzaren harra bere barnean du. Bizkaiko burdin meatzeen zauri gorriko lurretan, Zugastietako eskultura parkean, bertan burdina

ateratzen zen garaian izango zen lan zalaparta ahalbideratzen zuen tresneriaren aldarri den *Azpiegitura* izeneko burdinez eginitako lana jarri berri du.

Musikan hainbat urtez aritu izan zara...

Erdi jolasean, Anoetako Gaztetxean mugitzen ginenon lagunarteko zerbaiten modura sortu zen *Izeba Pilarren Ilobak* taldea. Egoitz Luisa baterian, Gorka Otxoa ahotsean, Iñigo Errazkin gitarran eta ni baxuan aritu ginen. Iñigok berehalaxe utzi behar izan zuen eta Adur Leunda

hernialdearra sartu zen gitarran. Taldea 2004an sortu eta 2008ko martxoan azken emanaldiaz bukatu zen. Gero, *The Solanos* eta *Rufus Rei* taldeetan ere jo izan nuen; lehenbiziko bietan *rock*-a eta hirugarrengoa *reagge-ska*.

Izeba Pilarren Ilobak-en azken emanaldia Anoetako Gaztetxean hunkigarria izan zen, ezta?

Taldearen hasiera ere halakoxea izan zen. *Izeba Pilarren Ilobak*-en hasiera eta amaiera oso hunkigarriak izan ziren. Horrenbeste urte Anoetan talderik izan gabe, bertako jendeak hasieratik oso ongi hartu gintuen. Bukaera arte babesa eman zigun.

Nola inguratu zara eskultura mundura?

Aurretik, baserrian aurkitutako olioekin aritua nintzen jolas modura lan abstraktuak egiten, baina, Amezketan, Guillermo Olmorekin murgildu nintzen bete-betean eskulturgintzan. Guillemorekin material bakoitzak ematen dituen aukerak aztertu eta lantzeko teknika garatu ahal izan dut. Lanaren sormena nondik nora eraman behar den irakatsi dit eta laguntasuna eman ere.

Zein material lantzen duzu?

Egurra, harria eta burdina lantzen ditut, eta bestetik margogintza aldetik olioak eta akrilikoak erabiltzen ditut. Harria,

hotza, gogorra eta hauskorra da eta bere izaera transmititzen du. Egurra, aldiz, beroa, maneigarria da eta burdinak ere beste materialak bezalaxe sentsazioak transmititzen ditu.

Nola egiten duzu material aukeraketa?

Ni, lehenik, ideia batetik abiatzen naiz. Ideia hori materiala aukeratzean ere garatu egiten da. Ideia bakoitzak, astebete, hilabete edo urtean zehar bere forma hartzen du. Bide horretan ideia horrek material bat, bi edo hiru hartuko ditu. Material nahasketa egitean lan batean kontraesana bilatzen da.

Idea bat gauzatu bitartean izaten den ibilbidea nola egiten da?

Eskulturen eskulangintza nik egiten dut; materiala ukitu eta sentitzea oso gogoko dut. Eskultura egitean materiala eskuez sentitu eta lantzea oso garrantzitsua da, sentipen ugari izaten dira eta asko adierazten du. Eskultura egiteko lantegi batera eraman daiteke, baina norberaren eskuez egin daitekeen oso desberdina da. Bere mugekin, beste goxotasunarekin, beste bukaera ematen diot norberak lanari. Egunerok ematen diot sormenari denbora tarteak.

Zein gai azaltzen da zure laneetan?



Gaietako bat, natura eta giza-kiaren artean dagoen parekidetasuna da.

Zein material duzu gogokoen?

Materialik gustukoena egurra da, berotasunagatik. Goxoa eta beroa da. Egurra material bizia da. Espero den lekuan begia izaten du... Harria lantzeko hauskorra da eta kontuz aritu behar da. Dimentsioak kontrolatzea zaila izaten da.

Mintza zaitez Amezketako San Martineko egurrezko basoa eta Larraitzeko harritzko multzoaren langintzaz...

Guillermo Olmorekin eskulnanean aritu nintzen. Eskulturren dimentsioaz jabetzeko oso aukera ona izan ziren. Egurrari kolore errearen itxura ematen aritu nintzen, lurrean etzandako egurrak banaka landu ondoren, izugarria izan zen zutik jarri zirenean osatu zuten basoa mirestea.

Zugastietako eskultura parkean

**BETELU PNEUMATIKOAK
TAILER MUGIKORRA**

Pneumatiko aldaketa
Zulatutako gurpilen konponketa

646 474 166

info@neumaticosbetelu.es - www.neumaticosbetelu.es

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

parte hartzeko aukera nola sortu zen?

San Martin eta Larraitzeko lanetan lagundu nion Guillermo Olmori. Nire lan egiteko era gustatu egin zitzaion eta berak eman zidan aukera Zugastietako eskultura parkean parte hartu ahal izateko. Bertan Euskal Herri osoko eskultoreen lanak bildu nahi dira. Meatzeak utzitako zuloa naturak hartu du berriro eta leku zoragarria da. Horrenbesteko balio historikoa duen tokian, eskulturak jartzea espazioa berriro betetzea da. Eskultura askok lehengai modura burdina erabiltzen dute, ingurunearekiko lotura aldarrikatzen dute.

Zer da Zugastietan jarri duzun Azpiegitura lana?

Bertan burdina ateratzeko izugarritzko azpiegitura izango zela bururatu zitzaidan. Gaur egun garai hartan izango zen tresneriaren izpia besterik ez da agertzen. Horrelaxe, garai hartan zegoenaren isla izan nahi du Azpiegitura lanak. Bi puntu kronologikoen lotura izan nahirik erdi hilik, erortzear den egiturak burdina ateratzen zen garai haren eta gaur egunaren arteko zubia izan nahi du. Burdinazko bost metroko garaiera eta hiru metroko zabalera duen lana da. Lehengai garraiatzeko erabiltzen zen dorreetako baten irudi abstraktua da.

Tolosan badaude hainbat eskultura multzo... zer deritzozu?

Eskultore handien lanak daude Tolosan, baina gordeta daudela ematen du. Ibilbideak azaldu egin behar dira. Eskultura ikusleengandik urrun dago. Eskulturrek espazioa bete eta zentzua ematen diote.

Nola dago euskal eskulturgintza?

Eskulturgintzara iritsi berria naiz, baina uste nuen baino mu-

gimendu handiagoa dago arte mailan Euskal Herrian. Eskulturgintzan tradizio handia dugu, baina jendearentzat, oro har, ikusezina izaten jarraitzen du. Maisu zaharrek in obsesionatu garen edo ez dakit, baina hauen lanak azaltzen diren modura, eskultore berrien lanak ezkutuan jarraitzen dute.

Nondik doa eskulturgintza?

Mundua globalizatzen den heinean, ideiak ere globalizatu egiten dira. Joera eta moden artean nahasketa handia dago eta izakia bere sustraieetatik gero eta urrunago dago. Sustraieetatik aldendu da eskultura, beste adierazpide artistikoak bezalaxe.

Eskulturgintzatik aurrera egitea posible al da?

Baliabideak behar dira. Hu-

tsetik hasita, oso zaila da. Pieza handien inguruan jende asko behar da.

Zein egitasmo duzu?

Gehienbat erakusketa kolektiboak egin izan ditut eta horretan jarraitzeko asmoa dut. Elkarren artean lotura duten lanak egin nahi ditut eta nire eskulturen nora-bi-

dearen bila ari naiz. Anoretan gazte batzuk aritzen dira harririk tiraka, eta Anoretan harririk ez dagoenez, giza probarako harria prestatzen ari naiz. Gaztetxearen inguruan. Herriko gazteek lagundu didate, giza probako lagunek bilatu zuten harria eta jaitzen ere lagundu zidaten. Lana Anoretako plazan kokatuko da.

Harriaren funtsa edo mamiaren bila ari naiz. Herri kirolak eta artearen arteko lotura izango den Amalur izeneko lana izango da. Harria lurretik dator eta bere arima bitlatzen dut.



Irakurlearen begietatik



Ione Gorostarzu
Irakurlea

Iragana gero eta handiagoa da. Iragana gizenduz, orainean bizi dugun denbora. Eta batzuetan guk, denborak garamatzen hauek, ez dugu aski ordu, minutu, segundo, nobela bat hartu eta harekin gozatzeko. Hori ez irakurtzeko aitzakia izan ez dadin, hara hemen gaurkoan dakardan proposamena. Denbora eta espazioz neurri txikiko liburuxka, baina ez horregatik balio gutxiagokoa, jakina.

Utriusque Vasconiae, Iragana gero eta handiagoa da

EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako Fakultateak antolatutako Oihenart Aforismoen I. Lehiaketako lanak dira orri hauetan ageri direnak; bai lehen bi sariak lortu zituztenak eta baita gainera finalistenak ere. Fito Rodriguezek hitzaurrean esaten digunez, Oihenartek "XVII. mendean bildutako erretrauak, zuhur-hitzak edota atsotitzak, egun genero literario honen aurrerakariak izan ziren" eta aforismoen literatura bultzatzeko antolatu zuten lehiaketa hau.

Zer aurkituko dugu, bada, idazle hauen hitz laburretan? Egia esan, ezaugarri komuna idatzien laburtasuna da; hortik aurrera, baina, oso estilo ezberdinetako esaldi eta aipuak ageri zaizkigu. Testu iradokitzaileak dira batzuk, beraiek bakarrik eta pentsamenduaren katez barne edo elkar-hizketa luzeak piztuzketenak; badira nolabaiteko lezioa eman nahi dutenak ere, eta, izan, badira indar edo xarma berezirik gabeko esaldi zenbait ere, egia esan behar bada. Horrez



gain, egile bakoitzak bere erara ulertzen eta bizitzen, sortzen du aforismoa. David Tijero izan zen lehiaketako irabazlea, eta baditu esaldi ederrak, liburuari izenburura ematen dion *Iragana gero eta handiagoa da* kasu. *Gure konkistatzaileen nahasketaren emaitza gara. Beldurrak beti irabazten du. Bigarren saria lortu zuen Antton Erkiziak, berriz, errimarekin jolas egiten du, eta umorea zein esatera zahar kutsua nabari zaio: *Haur ta helduen gosetea, aintzat hartua izatea. Dena bertzez, askatasuna**

nekez. Gainerako idazle finalistek ere eskaintzen dizkigute aipu politak: *Desioak bere burua irensten eta Oraindik galdu ez dugun horren bila ibili*, Ana Urkizak. *Inperfektioa perfektua da, eta Hau ez da esaldi bat, zuk hala nahi ez baduzu*, Iñaki Etxeberria. *Ametsetan izotza bihurtu zen. Esnatzerakoan, ur besterik ez zen edota Besteena lehenesten zuen beti. Eta emakume deitu zuten*, Carmen Valois. *Itxaron penetan bizi gara zein Oihartzuna plagio hutsa da* esanez datorkigu Juan Ramon Alberdi.

Xabier Zubizarreta, horrelako baieztapenekin: *Hitzak maitatu daitezke filologia ikasi gabe edota Heriotzari beldur oraindik? Bada, jakin, denbora gehiago eman duzula hilik -13.700 urte inguru- bizi-rik baino. Eta gainerako idazleak baino aipamen luzeagoekin, azkenik, mikro iritzi artikulua gisakoekin, Altzalarre: *Geziak, orratzak, marratxoak eta bertzelako ikono falikoak erabiltzen ditugu norabidea markatzeko. Diana, puntua, borobila, eta halakoak erabiltzen ditugu gunea edo hel-**

muga adierazteko. Ikonografiak erakusten digu sexua dela gure hizkuntzarik zaharrena.

Hitzen ekonomia, lan honek erakusten diguna; soberakoa kendu eta muinera joan, horra hor aforismoaren indarra, gutxi-rekin mintzatzea. Ziur liburutxo honetan zuk zeuk ere topatuko duzula zeure esaldia, dudarik ez dut. Nik neure batzuk topatu ditut; *Ez dago ezer tristeagorik, egunez piztuta dagoen argia baino*. Badakizu, irakurle, literatura ez da neurtzen hitz eta orri kopuruan, eta liburu txiki hau gaurkoan, iragana handitzen jarraitzeko. Neurriak ez axola omen; hurrengorako, *Martutene* zain dut.



EMAROCK, iragana, oraina eta geroa

Datorren ekainaren 16ra bitartean Tolosako Aranburu Jauregian "Emarock, iragana, oraina eta geroa" erakusketa ikusgai egongo da. Esposizioak euskal musika panoraman emakumeek duten presentzia irudi bidez aztertzen du. Ikuslegoari hausnarketarako bidea ere ematea helburu du.

Erredakzioa



Izan ere, erakusketak galde-
rez josi egiten du bertaratuta-
koa: "zenbat talde ezagutzen
dituzu soilik mutilez osatuta?
Eta neskez osatuta? Zenbat
neska bakarleri edo musika
taldeetan? Eta hauetatik zen-
batek jotzen dute bateria? Zer-
gatik daude musika eskolak
neskez beteta eta gero esze-

natokietan ez da kopuru hori
mantentzen?"

Galderek ikuslea kokatzen
laguntzen dute. Aranburu
Jauregiko paretetan zintzilik
ikusgai dauden argazkietan,
Euskal Herriko musikari, abes-
lari eta musika munduko ema-
kumezko profesionalak ageri
dira kontzertuetako indarra

erakutsiz, eszenatokietako
adrenalina azalduz.

Izen zerrenda luzea da:
Zea Mayseko Aiora Renteria,
Hesianeko Zuriñe Hidalgo,
Amairreko Naroa Gaintza,
Keikeko Nerea Sanchez, Sor-
kun, Humuseko Natalia Gar-
mendia, Katamaloko Aintzina
Lekua, Nerea Urbizu eta Itsaso
Etxebeste, Goseko Ines Osina-
ga, Gaur Ezeko Jule Goñi eta
Idoia Arraiza... Hauek guztiak
egun eszenatoki gainean mu-
sikaz gozatzen ikus daitezke.
Horietaz gain taula gainean
ibilbide luzeagoa egindakoak
edota garai bateko talde eta
bakarlariak ere gogora ekarri
dira Emarock erakusketa ain-
tzat hartuta: Amaia Zubiria,
Lurdes Iriondo edota Carro-
cerías Betoño, Las Sexpeares,
Las Culebras...

Zerrenda luzea bada ere,
ikusleak izen bat baino gehia-
go faltan botako du. Eraku-
keta osatzen laguntzeko bi-
dea ere izango du bisitariak.



Natalia Garmendia
Humus
Tolosa

Aranburuko paretak batek,
"Ezagutzen duzu beste neska-
rik musika talderen batean?",
galdera luzatu eta erantzuna
plazaratzeko bidea ere emate-
n du. Post-it bidez erantzutea
baino gauza erraz eta zuzen-
agorik ez.

Argazki erakusketa baino
gehiago

Emarock 2010eko aben-
duan sortutako proiektua da
eta 2011n Emarock Kultur El-
kartea bilakatutakoa, "proiektu-
aren beharrianak ikusita".
Elkartearen helburua argia da:
"Euskal Herrian batez ere, mu-
sikan aritzen diren emakumeei
protagonismoa eta espazio bat
ematea". Horretarako euskal
emakume musikariek hainbat
proiektu garatu dituzte aipatu
erakusketarekin batera: www.
emarock.com webgunea eta
"Emarock. Iragana, oraina eta
geroa" dokumentala.

Bien berri, Saioa Cabañasek,
argazkien egileak eta Emarock
proiektuaren bultzatzailetako
batek eman du: "euskarazko
taldeetan mugituko gara ba-
tez ere, gure helburua denak
batzea da", argazki erakusketa-

ri buruz. Webguneaz ere min-
tzatu da Saioa Cabañas: "www.
emarock.com webgunean era-
kusketaren informazioa igoko
dugu: argazkiak, biografiak,
taldeen zerrendak... Ema-
kume musikarien webgunea
bihurtu nahi dugu". Internet
gune honetan, musikari arte-
ko harremanak bultzatuko
dira gainera, norbanakoak ha-
rremanetan jarriz eta taldeak
osatzeko bidea emanez.

Emarock proiektuaren beste
hanketako bat dokumenta-
la izan da. Guztira emakume
musikarien 15 ahots jaso dira
euskal musika munduan ema-
kumeek betetzen duten tokiaz
hitza egiteko. "Eszenatokietan
horren emakume gutxi zerga-
tik dauden hausnarketa ikus-
legoari helarazi nahi genion",
dio Saioak. Horretarako, abes-
lari zein musikarien ahotsa en-
tzutea bezalakorik ez; besteak
beste, Aiora Renteria eta Ines
Osinaga testigantza emaile
bihurtuko ditu "Iragana, orai-
na eta geroa" dokumentalak.

Tolosa, abiapuntua

Erakusketa Euskal Herrian
ibiltaria bihurtuko bada ere,


abiapuntua Tolosan kokatu
da. Bi arrazoi nagusi kontuan
hartu dira Tolosa aukeratzeko
orduan, Saioa Cabañasek
kontatu bezala: Aranburu
Jauregiaren tamainagatik eta
Tolosak herri bezala musikari
dagokionez duen mugimen-
duagatik, hein handi batean,
"Bonbereneari esker", Ema-
rockeko hizlariaren esane-
tan.

Bestetik, Tolosako Udaleko
Parekidetasun Batzordeko
lehendakari Miren Urkolak
erakusketaren garrantzia
azpimarratu nahi izan du:
"erakusketak izan direnei
aitortza egiteko, musika ar-
loan dabilen emakumeei ja-
rri dezaten animatzeko eta
prestatzen ari direnei bidean
jarrai dezaten eskatzeko ba-
lioko digu".

Orain ikusleen txanda da,
Aranburu Jauregira bisital-
dia egin, erakusketaz eta
dokumentalaz disfrutatu,
hausnartu eta proiektua-
rekin bat egiteko interesa
izanez gero 3035 0345 33
3451011977 kontu zenba-
kian ekonomikoki laguntze-
ko aukera dago.



Korreo. 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL/FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347



Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Korreo Kalea, 3
Tolosa

irakurri entzun Ikusi

Hodeien adorea
Yoseba Peña

Plaza zokoan hil duten droga -saltzailea da "Hodeien Adorea" nobelako kontalaria: hitzontzi jasangaitza, isekaz eta gorrotoz mintzo den sasijakintsu hastiagarria. Trapitxeroak, horrenbestez, heriotzatik begiratzen die iragan hurbileko gertakari. Eta hiru anaiaren inguruko pasadizoak kontatuko ditu: Txefe kotxe mekanikaria, Jon unibertsiarria eta Hodei autista. Familia arras apalekoak dira Preciado anaiak, Donostiako periferiako estolderian haziak, bizitzan zori txarretik gehiago izango dutenak ditxa gozotik baino.

Oroimenaren oraina
Benito Lertxundi

Orioko artistak betidanik ohitu izan gaituen legez, Oroimenaren oraina hau ere, sortze lan zaindua da, sakona eta sentzuala, era berean; bizitza osoa abestien sorkuntzari eta interpretazioari eskaini ondoren, Benito Lertxundik, bere hirurogeita hamargarren urtemugan aurkezten duen opera bikaina.

Xora
Peio Cachena

Inoiz ez da fikziozko luze metraiarik egin Zuberoako euskaraz, inoiz ez da zuberera zine areto ilunetan sartu! Egun guzietako harat honatez aserik, bere ofiziozko perspektibek asperturik, nauziaren eskeintzak ukanik ere, Xiberotar gazte bat idazteari lotzen da suharki. Holaz bere osaba zaharraren xenda edireiten du, Hollywood izeneko bere gisako idazlea; Ameriketara ari izanik, bortuan bizi da ber bera, ermita bezala. Hari arrimatuko da, ber denboran desafio eta miresmena sortuz bi gizonen artean.

hitzorduetak

Ekainaren 1etik 15era bitarteko

Haurrak

Uzturpe Ikastolaren eguna. Ekainak 2, larunbata. Uzturpe ikastola, Ibarra.

Dantzari Txiki Eguna. Ekainak 9, larunbata. Alurr Dantza Taldeak antolatuta. Ibarra San Bartolome plaza eta Emeterio Arrese parkea, egun osoan zehar.

Hirukide ikastetxearen jai. Ekainak 9, larunbata. Hirukide ikastetxea, Tolosa.

Titirijuegos. Ekainak 9, larunbata. Tolosa, Topic, 18.30. Haurrak 4 euro eta helduak 7 euro.

Laskorain ikastolaren eguna. Ekainak 10, igandea. Laskorain ikastola, Tolosa.

Uxola Sarien sari banaketa ekitaldia. Ekainak 11, astelehena. Tolosa, Topic, 19.00.



Tailerra

Autokonpostaje ikastaroa. Ekainak 2, larunbata. Tolosako Laskorain ikastola, 10.30.

Kirola

Il www.maskarreras.com auto-topaketa. Ekainak 2, larunbata. Ibarra San Bartolome plaza, 09.30.

Bisita gidatua. Ekainak 3, igandea. Abaltzisketa, Txindokiko Itzala, 10.00. Artzainen bizimodua ezagutzeko aukera. Larraitetik atera, lau orduko ibilbidea egin eta artzainekin elkartu, euren bizimodua ezagutzeko.

Mendi entrenamendua. Ekainak 9, larunbata. Abaltzisketa, Txindokiko Itzala. 08.00etan hasita Iker Karrera mendi lasterkariarekin bi ordu eta erdiko entrenamendua, ondoren dutxa eta hamaiketako eta azkenik Iker Karreraren hitzaldia.

Piragua ikastaroa. Ekainak 9-10. Abaltzisketa, Txindokiko Itzala. Bost orduko ikastaroa. 3-7 kide bitarteko taldeak.

Zinea

Next music station: Lebanon. Ekainak 2, larunbata. Tolosa, Leidor, 20.30. Euro 1.

Next music station: Marocco. Ekainak 9, larunbata. Tolosa, Leidor, 20.30. Euro 1.

Fermin Muguruza musikari eta dokumentalgileak mundu



arabiarreko musika-errealitatearen soinu-mapa egin du. Dokumental hauekin hizkuntza berriak bilatuko ditu, ekialdearen eta mendebaldearen arteko zubi eta gerturatze lanak egiteko. Horretarako, erritmorik modernoak baliatuko ditu: popa, rocka, rapa eta rock alternatiboak.

The wish fish. Ekainak 3, igandea. Tolosa, Leidor, 17.00. Haur zinea. Aste berdea Euskaraz. 70 min. Denentzat.

Alardea

1813ko Tolosako Gatazkaren Oroitzapeneko Alardea. Ekainak 3, igandea. Tolosa, Nafarroako zubian inguruan.

Azoka

Artisautza azoka. Ekainak 1-3. Tolosa, San Frantzisko etorbidia.

Tolosa Berdez. Ekainak 2-10. Tolosa. Lore eta landare erakusketa eta salmenta.

Jaialdia

Herria Kantuan II. Jaialdia. Ekainak 9-10. Alegia, Herriko plaza, 11.00. Herriko musikari, dantzari eta antzezleen musika jaialdia.

Erakusketa

Gelede Masks. Ekainaren 10a bitartean. Tolosa, Topic.

Hitzaldia

Fibromialgiari buruzko hitzaldia. Ekainak 14, osteguna. Tolosa, Kultur Etxeko areto nagusia, 16.30. Sentsibilizazio Zentraleko Sindromeak: Fibromialgia, Neke Kronikoa, Sentsibilitate Kimiko Anizkoitza, Elektrohipersentkortasuna... Bizi Bide elkarteak antolatuta.

Antzerkia

Lysistrata. Kultur Etxeko Antzerki Taldea. Ekainak 15, ostirala. Tolosa, Leidor, 20.30. 5 euro.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Goi eta erdi mailako heziketa zikloak
Aurre-matrikula epea: maiatzaren 28tik ekainaren 8ra.
Matrikula epea: uztailaren 5etik 11ra.

Goi mailarako sarbide frogaren prestakuntza
Aurre-matrikula epea: maiatzaren 28tik ekainaren 8ra.

Lanerako prestakuntza:
Ezagutu ezazu gure eskaintza irekia.

Gure espezialitateak:
Administratza eta informatika
Elektrizitatea, elektronika eta telekomunikazioak
Fabrikazio elektromekanikoa
Eraikuntza metalikoak
Produktzio zerbitzua eta mantenua

Informazioa eta orientazioa nahi izanez gero, jo ezazu Tolosaldea GLHBiko Ikastn Zerbitzura.

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?

Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 1
Iturrioz, I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Larunbata, 2
Olarreaga M.
(Martin J. Iraola)
Tolosa

Igandea, 3
Santamaria I.
(Nafarroa Et.)
Tolosa

Astelehena, 4
Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

Asteartea, 5
Olarreaga I.
(korreo kalea 2)
Tolosa

Asteazkena, 6
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Osteguna, 7
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Ostirala, 8
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Larunbata, 9
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Igandea, 10
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Astelehena, 11
Bronte C.
(korreo kalea 20)
Tolosa

Asteartea, 12
Bengoetxea E.
(Kale Nagusia, 7)
Tolosa

Asteazkena, 13
Iturrioz, I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Osteguna, 14
Lejeune, Leyre
Euskal Herria, 46
Ibarra

Ostirala, 15
Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udalzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegiatan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokalde, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 laguntzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

Horoskopoa

Ekainaren 1etik 15era arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Eragin interesgarriak izango dituzu inguruan, helburuak eskuratzeko baldintza intelektual egokiak ahalbidetuko dizkizute, gainera. Bestalde, bikotearekin ume jarrera erakutsiko duzu, konpromisotik urrun.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Baldintzak zertxobait aldatu badira ere, zure helburua eskuratu ahal izateko egoera ez da gehiegi mudatu. Dirua eskuratzeko aukera suertatuko zaizu, familiako lagun baten bitartez etor daiteke.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Jasandako garai txarra dagoeneko pasa da, aurrera egiteko kementsu eta indartsu zaude. Azken aldiak gaizki ulertzetan murgilduta egotea ohikoa suertatzen ari zaizu. Konpontzeko asmorik?



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Zure iritziengan horrenbesteko lotura duzunez, emozioek ez dizute arrazionaltasunez jokaerak aztertzen uzten. Familia barruan, generazio arteko hausturak emango dira.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Gertatzen ari dena zoragarria da, aurrekoa ahazteko balio duena. Zure buruarengan konfiantza berreskuratzen ari zara, baita besteengan ere; horrek oreka ezartzen lagunduko du.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Egoera zure alde dagoenez, baldintza gogorak ezartzea ere aukeretako bat da. Interesa aztertzea baino ez dagokizu. Ametsak egi bihurtzeko energia eta gaitasuna izango duzu.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Pazientzia, espiritualtasuna eta sen ona goraitu izan zaizkizun ezaugarriak dira. Inpartziala izateko gaitasuna duzu, horrek zalantzi ez izaten laguntzen ditu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Laguntza jasoko duzu, pertsona horrek eta zure ideiak garbiago ikusteko beta eskainiko ditu. Proiektu berriek egoera oso bereziak ekarriko dituzte zure bizitzara. Hala ere, gertatu beharrekoa uste baino mantsogo etorriko da.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21

Aldaketa positiboak datoz. Prest al zaudete? Lanean ere ardua gehiago hartzeko gaitasunez ikusiko duzu zure burua. Azkenean, horrenbeste esperotako unea iritsiko da. Energia ondo bideratu ezazu.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Gutxika murgilduta zeunden egoeratik ateratzeko bidea garatzen ari zara; lortzerakoan egoera erabat ezberdina izango da; zuk horrela ikusiko duzu, behinik behin. Negozio berri batean sartzeko aukera aurkeztuko dizute.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Pazientzia zure lagunik onena bihurtu beharko duzu, zauden egoeran itxaron beharko duzu eta baldintza guztiak bere tokian jartzerakoan pausoa emateko moduan egongo zara.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Gorabehera garaia ez da amaitu, oraingoan aurrerabide garaia tokatzen zaizu baina ondoren zer datorren gogoratu beharrik ez dago. Janariarekiko zure jarraia aldatu beharko zenuke, janariak energia eta bizitzeko gogoa ematen baitu.

ANDOAINGO LHI LANBIDE HASTAPENEN IKASTETXEA



ANDOAINGO UDALA

16 - 18 URTE BITARTEKO GAZTEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA PROGRAMA



SOLDADURA LAGUNTZAILEA



IBILGAILUEN TXAPA ETA PINTURA



ALDA EZAZU ZURE IKUSPUNTUA




Komikia: Joseba Antxustegiartek

orain
ingeleraz
Jere bai!!



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.B. INSTITUTUA



eskaintza akademikoa

arautua **goi mailako zikloak** (euskaraz)

- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazio eta robotika industrialak
- Metal eraikuntzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea

erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak

ez
arautua

- Langileen etengabeko formazioa
- Langileen formazio espezifikoak
- Langabetuen formazioa

Tel: 943 651 147
943 650 664

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

aurrematrikula

Maiatzaren 28tik
Ekainaren 8ra

**matrikula
epea**

Uztailaren 5etik 11ra

zure etorkizuna ziurtatzen dugu!!

- Lankidetzaren hitzarmenak 150 enprekin
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromisoa hartzen dugu

www.tolosaldea.com